

Erlauntza



Komunikazioa
eta informazioa



Gizarte eta osasun
zerbitzuak

Erlauntza

Auzoko adinekoei eskaintzen zaien zerbitzua indartze aldera, profesionalen tokian tokiko taldeak sortzea da Erlauntza ekimenaren asmoa. Elkar ezagutzen duten profesionalak dira, espezialitate ezaguna dutenak eta elkarrekin harremanetan daudenak. Hala, auzoko adinekoei ematen zaien zerbitzua indartu egingo da profesional bakoitzaren rolaren eta ordezkatzeko duen erakundearen jardueraren bidez. Erlauntza artisau lana da; izan ere, denbora behar da pertsonak hobeto ezagutzeko, antolatutako programen eta aurreikusita dauden berri izateko, eta eskura dauden baliabide ukigarriei eta ukiezinei buruzkoak jakiteko.

1. Erakunde sustatzaileak

Erlauntza APTES - Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkartearen ekimena da, eta Etorkizuna Eraikiz programaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzen duen EUSKALTRUST proiektuaren barruan dago.

2. Erakunde mota

Publikoa eta pribatua

3. Xede taldea

Auzoetan eskaintzen diren zerbitzuetara jotzen duten adinekoak egunerokoan orientatu, informatu edo zaintzen dituzten profesionalak, hainbat arlotan edo sektoretan dihardutenak: osasun zentroa, kiroldegia, gizarte zerbitzuen zentroa, zahartze aktiboko jarduerak, kultur ekitaldiak, botikak eta abar. Pertsona horiek guztiek adinekoen bizi kalitatea sustatzeko, mantentzeko edo berreskuratzeko asmoa dute.

4. Lurralde eremua

Donostia (Gipuzkoa)

5. Etiketak

Zahartze aktiboa, komunikazioa, Gipuzkoa

6. Helburuak

Donostiako auzoetan **Erlauntza taldeak** sortzen hastea. Hainbat zerbitzutan diharduten hurbileko profesionalek osatuko dituzte taldeok; besteak beste, osasun zerbitzuetan, gizarte zerbitzuetan, kultur arlokoetan, kiroltakoetan edota zahartze aktiboaren ingurukoetan dihardutenek. Pertsonen artean konfiantza maila handia lortzea da asmoa, bakoitzak bere gune fisikotik edo zereginen eremutik hobeto bete ditzan bere zerbitzu helburuak.

Berariazko helburuak:

- Pertsonak eta erakundeak elkar hobeto ezagutzea.
- Auzoko baliabideen instalazioak eta horietan lan egiten duten pertsonak ezagutzea.
- Profesional bakoitzak egiten duen lanerako onuragarriak diren konexioak sortzea; konexio horiek finkatzea, emaitzak areagotuko dituzten jardunbide ziklikoetan (prozesuetan).
- Jardunbide egokiak jendaurrean nabarmentzea.
- Harremanak sendotuko dituzten tresna analogikoak eta digitalak sortzea.
- Emaitzak goragoko mailetara eramatea hurbileko zerbitzu bakoitzean.

7. Metodologia

Ekimena Balio Balantza izeneko tresnarekin diseinatu da, ez da besterik erabili. APTEsek sustatutako Diseinu Sozialeko Eskolak garatutako tresna da. Horren bidez, konfiantzazko harremanak sortzen hasi dira partaideen artean. Parte hartzaile bakoitzak erabaki behar du zer ekarpen egiteko prest dagoen eta zer jaso nahi duen ekimenetik. Eranskin gisa txertatu da txostenean.

Plangintza eta martxan jartzea

2017ko maiatzetik aurrera egin da ekimenaren plangintza eta martxan jarri da.

- Ezarpen faseak. Bi fase (oraingoz):
 - o 1. fasea: talde sustatzailea (2017ko 2. seihilekoa).
 - o 2. fasea: tokiko Erlauntza taldeak (2018ko urtarrila).

Tokian tokiko taldeetan lortuko dituzten aurrerapenen arabera baloratuko da ekimena hiriko beste auzo batzuetara zabaltzea.

Parte hartzaileak

- Talde sustatzailea. Taldeak hiru saio egin ditu elkar ezagutzeko eta kideen xedea bateratzeko, aurrerago auzoan lan egiten hasi ahal izateko. Honako hauek dira talde sustatzaileko parte hartzaileak:
- Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoko ordezkari teknikoak: Estíbaliz Goyenechea eta Amaia Malet.
- Donostialdea ESIko koordinazio soziosanitarioko arduraduna: Mari Jose Goñi.
- Donostiako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Zentroen arduraduna: Marijose Larrea.
- Donostia Lagunkoia Planaren arduraduna Donostiako Udalean: Eva Salaberria.
- Donostia Kiroleko kirol jardueren arduraduna: Iñaki Zabaleta.
- Plus 55 zerbitzuko arduraduna: Maria Fernandez.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendariordetzako Osasunaren Sustapeneko teknikariak: Arantxa Uranga eta Maria Blanco.
- Erlauntza Egia eta Erlauntza Intxaurrondo taldeak. Kideek profil teknikoa dute, eta eskaintzen dituzten zerbitzuen bidez zuzeneko lotura dute auzokideekin. Erlauntza talde bakoitzak honako kide hauek ditu: Gizarte Zerbitzuen Zentroko gizarte langilea, osasun zentroko lotura soziosanitarioko erizaina, Donostia Kiroleko hurbileko teknikaria, Donostiako Udaleko Osasunaren Sustapeneko teknikariak, Plus 55 programako teknikariak, auzoko botiketako titularrak, Osasun Publikoko Saileko teknikariak (EJ), kultur etxeetako arduradunak (Donostia Kultura).

APTES elkarteak deitu eta gauzatu ditu Erlauntza saioak Egian eta Intxaurrondon, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzen duen EUSKALTRUST proiektuaren bidez finantzatu da zeregin hori.

Garapen egutegia:

1. fasea: Talde eragilea [2017ko uztaila-abendua]

Erlauntza ekimenaren lehenengo fasea 2017ko ekainetik abendura egin zen. Aldi horretan talde sustatzailea sortu zen, Erlauntzaren helburu partekatua zehaztu zen eta ekimeneko erakunde eta pertsona bakoitzarentzako balio garbia identifikatu zen. Prozesu horretatik aurrera diseinatu da 2. fasea.

2. fasea: Tokiko taldeak Erlauntza Egia eta Erlauntza Intxaurrondo [2018ko urtarrila-]

2018ko urtariletik aurrera, Donostia Lagunkoiak etengabe lagunduta eta talde eragileko pertsonekin koordinatuta, Egian eta Intxaurrondon adinekoei arreta ematen dieten sektoreetako profesionalak identifikatu dira, eta deialdia egin zaie.

8. Alderdi berritzaileak

Auzoan zenbait profesional adinekoen inguruan biltzea ez da, berez, jardunbide berritzailea. Talde eragileak Balio Balantza kontzeptua erabili izana da berritzailea; izan ere, kontzeptu hori erabili da Erlauntza talde bakoitzak egunero egingo dituen lan estandarrak zehazteko. Era berean, pertsonak ezagutzeko uneak eskatzen ditu ekimenak. Hori funtsezkoa da konfiantzazko harremanak sortzeko, eta, gainera, jarduera horri ez zaio tokirik eskaintzen beste foro edo testuinguru batzuetan.

9. Ebaluazioa eta emaitzak

Tresna bat diseinatuko da Erlauntza taldeetan egindako aurrerapenak neurtzeko. Horretarako, Gizarte Eragina duten proiektuen aurrerapena neurtzeko proposatutako metodologia erabiliko dugu. Gutxieneko ibilbide bat egina izatea beharrezkoa denez, oraindik ez da diseinatzen hasi.

10. Eranskinak eta estekak

Donostia Lagunkoia:

https://issuu.com/donostialagunkoia/docs/memoria_donostia_lagunkoia_2017_cas